



AMETZAGAKO (GUEÑES) DEPOSITU BERRIAREN OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA ESPEDIENTE-ZK.: 3128

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Angela Ríos Somavilla
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Ametzagako (Gueñes) depositu berria

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Ametzagako depositu berria, Gueñesen, oinarritzat hartzen da ur tratatuaren oraingo depositua eraisteko eta, ondoren, toki berean 1.000 m³-ko beste bat eraikitze behar diren obretarako. Depositu berri horri ur tratatua hornituko zaio Avellanedako depositutik. Konexio horri esker, Ametzagako deposituan dauden ur-harguneen mendeko izateari utziko zaio, eta tratatutako ura Zadorra hornidura-sistematik edo Ordunte sistematik hornitu ahal izango da. Proiektatzen da, gainera, Ametzagako depositu berriaren eta Saratxagako auzoaren arteko konexioa. Azken horren etxebizitzak zuzenean hornitzen dira deposituko bertako ur gordinaren harguneen saretik. Era berean, gaur egun Ametzagako depositua hornitzen duten ur gordinaren harguneetatik egindako ur-kentzeak ixtea planteatzen da. Gaur egun, Gueñes da lehen mailako sareko depositurik ez duen azken udalerrietako bat (horrelako deposituek hornidura ordu batzuetan hornitzen dute lehen mailako banaketa-sarean arazorik badago). Proiektu honen bitartez arazoa konpondu egingo da, eta ustiatzeko kondizioak hobetu egingo dira.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Proiektuan honako jarduketa hauek ezarrita daude: - Oraingo 500 m³-ko depositua eraistea.- 1000 m³-ko beste depositu bat eraikitzea, dagozkion urbanizazioa eta ibilgailuetarako sarbidea barne.- Saratxagako auzorako ekipo elektrogenoa eta eroanbide berria jartzea.- Gaur egun dauden ur-harguneak ezeztatzea, foru-aldundiak eskatuta. Deposituekin lotutako obra guztiak kokaleku berean daude; horrenbestez, ezin dira loteka banatu kontratista batek baino gehiagok egin ditzan. Saratxagako ponpaketa deposituaren instalazioaren barruan integratuta dago, eta errendimendu-probak egoki egin ahal izateko, bultzatzea obran bertan exekutatu behar da. Dauden ur-harguneak ixteari dagokionez, Foru Aldundiak obra



B.- KONTRATUAREN XEDEA

baimentzeko jarritako betekizuna da, eta horrenbestez, lan horiek ezin dira obra nagusitik bereizi.

4.- CPV:

- CPV kodea:45232150-8
- Deskribapena: Urak banatzeko hoditeriekin lotutako lanak
- CPV kodea:45200000-9
- Deskribapena: Higiezinak eta ingeniari-tza zibileko beste lan batzuk eraikitze-lanak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

- ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua

(BEZik gabe)

BI MILIOI ETA BERREHUN ETA HAMAZAZPI
MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU
EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO
(2.217.233,29 €).

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 2.217.233,29 euro

3.- Prezioa zehazteko sistema:

- ☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 45214 60111

- 2025. urtea: 100.000,00
- 2026. urtea: 1.800.000,00
- 2027. urtea: 317.233,29

5.- Prezioen berrikuspena:

- ☒ BAI
☐ EZ

Aplikatu beharreko formula:



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuari honako hau aplikatuko zaio: 1359/2011 Errege Dekretua, urriaren 7koa, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko oinarritzko materialen eta formula-eredu orokorren zerrenda onesten duena.

II. ERANSKINAREN arabera (*Armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko formulen zerrenda*), erreferentziako obrarako prezioak berraztertzeko formula hau izango da:

OBRA HIDRAULIKOAK. 561 formula. Eduki handia siderurgian, zementu eta arroka eta agregakinetan. Tipologia adierazgarrienak: Hornidura eta saneamenduko instalazioak eta eroanbideak.

$$Kt = 0,10Ct / C0 + 0,05Et / E0 + 0,02Pt / P0 + 0,08Rt / R0 + 0,28St / S0 + 0,01Tt / T0 + 0,46$$

Prezioak berraztertzeko formuletan «t» azpiindizearekin adierazten dira material bakoitzaren prezio-indizeen balioak (hau da, haren zenbatekoa berraztertu behar denean eta kontratua exekutatzekeo aldiari dagokion hilean), bai eta formularen bidez lortutako berraztertzekeo Kt koefizientea ere, eta "0" azpiindizearekin adierazten dira 9/2017 Legearen 103. artikuluko 4. apartatuak adierazitako datan material bakoitzak dituen prezio-indizeen balioak.

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagirien bidezkoa

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikatzekoa

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: Hamalau (14) hilabete

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Obren bermealdia enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da, baina inoiz ez URTEBETetik (1) beherakoa.

5.- Kontratua exekutatzekeo tokia: AMETZAGA (GUEÑES)

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Ez da aplikatzekoa



G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Ez da aplikatzekoa

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

Obraburu bat, gutxienez 10 urteko esperientzia duena antzeko obretan eta, halaber, kontratistaren ordezkari gisa ere jardungo duena, 18. klausulan adierazitakoarekin bat etorritik.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea (Hidraulikoak) 1. azpitaldea (Hornidurak eta saneamenduak) 4. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK

Kondizio-agiri honetan zehaztutako irizpideei jarraikiz aurkeztutako proposamenaren ebaluazioa egiteko, dokumentazio teknikoan memoria bat egongo da, ondoren zehaztutako ordenan eta edukiarekin egituratuta:

a) Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (23 puntu)

Proiektuaren azterketa

Lizitatzailleak proiektuaren azterketa egingo du, eta proiektuaren dokumentazioari buruzko ondorioen zerrenda prestatu beharko du, proiektuaren gaineko ezagutza-maila erakusteko.

Halaber, garapenean eragiten duten kanpoko baldintzatzaileen azterketa ere balioetsiko da, baita lizitatzaillearen iritziz kontraturako garrantzitsua den beste edozein inguruabar ere. Besteak beste, hirugarrenentzako eraginak minimizatzeko azterketa balioetsiko da, baita errekek, baso autoktonoaren edo zuhaixken landaredia eta errepideak egotearekin lotutakoak ere.

Obraren exekuzioaren azterketa

Obran jasotako jarduketa nagusietako bakoitzean, haien exekuzioa eta/edo proposatutako irtenbidea teknikoki nola gauzatu aztertuko da; teknologia eta behar diren teknologia nahiz eraikitze prozesuak zehaztuko dira, eta haien garapenean gainditu beharreko zailtasunak identifikatuko dira: kokalekua, ezarpena, instalazio lagungarriak, pilaketak, obrarako sarbideak, dauden zerbitzuetarako eraginak eta abar, hartarako proposatzen diren metodoak eta bitartekoak zehaztuta. Bereziki, honako hauen exekuzioa zehaztu beharko da:

- Hodiak zangan ezartzea Saratxagan.
- Dagoen depositua eraistea.
- Depositu berria exekutatzea.
- Ur-harguneak ixtea.

b) Obrarako jarriko diren bitartekoak eta lanen programazioa (22 puntu)

Obrarako jarriko diren bitartekoak. Obrarako proposatutako antolamenduaren organigrama eta eginkizun-deskribapena aurkeztuko dira, hartarako esleituko den lantaldea zehaztuta, baita haren arduraldia ere, eta kalifikazioa eta esperientzia aurkeztuta. ABEEei dagokienez, argi eta garbi zehaztuko da parte hartzen duten enpresen arteko eginkizunen banaketa.

Proposatutako ekipoen zerrenda zehaztuko da, kopurua eta neurriak adierazita, baita haien jabetza eta obran edukitzeko konpromisoak ere, behar bezala oinarrituta.

Baldin eta lizitatzailleak aurreikusten badu lanen zati bat hirugarrenekin ituntzeko beharra dagoela, haien izena ez ezik, haien erreferentziak eta aurrekontu osoan zer ehuneko dagokien eta konpromiso-gutunak ere adierazi beharko dira, eta, nolanahi ere, enpresa-profila edo sailkapena.

Laburpen-taula bat aurkeztuko da, barne hartuta obran hornitu beharreko materialen eta mekanismoen zerrenda, bereziki obrarako garrantzitsuak direnak, marka eta eredua barne.

- Hodiak.
- Balbula guztiak eta haien eragingailuak.
- Ponpak.
- Irazgaizte-materialak.

Eskaintako materiala loteslea da, eta horixe hornitu beharko du kontratistak adjudikaziodun gertatuz gero.

Obraren plangintza orokorra eta lan-programa:

Obrak garatzeko egiten den plangintza orokorrarekin bat etortzea balioetsiko da, kontuan hartuta haien kokapena eta exekutatzeke proposatutako bitartekoak. Lanen programazioa ere jasoko da, obrarako jarritako ekipoen eta bitartekoen arabera behar bezala justifikatua, eta proposatutako errendimenduekin bat datorrena. Bereziki, honako hau balioetsiko da:

- Jarduerak definitzeko xehetasun-maila eta koherentzia izatea askotariko obra-lanen exekuzioan duten sekuentzian.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta zehaztutako jardueren benetako iraupen zenbatetsiaren justifikazioa.
- Obra-planaren definizioa, Gantt-en diagramaren bidez adierazia, eta bide kritikoaren nahiz lasaiera-sorreraren azterketa.

EZ ZAIO PUNTURIK EMANGO EXEKUZIO-EPEAK MURRIZTEARI

c) Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (5 puntu)

Ingurumen-irizpideak (3 puntu). Honela balioetsiko da:

- 2 puntu: Gehienez 2 puntu eskuratuko dituzte lanak egitean, ingurumen-inpaktuak prebenitzea eta minimizatzea bermatzeko, obra egin bitartean garatzea proposatutako prozedura eta baliabideek, obraren ezaugarri eta berezitasunei egokitutakoek.
- 1 puntu: Gehienez puntu 1 eskuratuko dute obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenek. Hartarako, Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen gisa, taula bat jaso beharko da, obran sortzea aurreikusitako hondakinak zehaztuta, bai eta haien kantitateak eta aurreikusitako tratamendu-eragiketa ere (balorizazioa/ezabatzea).

Irizpide sozialak (2 puntu). Kontratua betetzen duten langileentzako berdintasunaren arloko neurriak. Gehienez ere 2 puntu emango dira:

- Kontratua betetzen duten langileentzat berdintasunaren arloan emandako prestakuntza, informazioa eta egindako kanpainak.

Dokumentazio teknikoak gehienez 10 Din A-4 orrialde edukiko ditu obren exekuzioaren laburpen exekutiborako, 75 Din A-4 orrialde Memoria Teknikorako, 30 Din A-4 orrialde obrarako jarritako bitartekoen eta lan-programaren atalerako, eta 10 Din A-4 orrialde ingurumen- eta gizarte-neurrietarako; gehieneko karaktere-tamaina ez da Microsoft Worden Arial letra motaren 11 baino txikiagoa, eta atal guztiak korrelatiboki zenbakitu beharko dira. Salbuespen gisa, Din-A1 eta Din-A3 orriak sartu ahal izango dira, aurkezteko formatu horiek eskatzen dituen dokumentaziorako. Orrialdeen guztizko zenbaketaren ondoreetarako, ez dira kontuan hartuko azalak eta aurkibideak, ezta obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa ere, eta informazio hori eranskin batean gehitu beharko da, bereiz. Ingurumen-irizpideak balioesteko, dagozkien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, behar bezala eguneratuak eta irismena ikusteko modukoak.

Lehen zehaztutako kondizioak betetzen ez badira, eskaintzailearen balorazioa zigortu egingo da; ezarritako mugak gainditzen dituen orri bakoitzeko, eskaintza teknikoaren balorazioaren puntuazioa 0,05 puntu murriztuko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK



Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Eskaintako prezio unitarioen zerrenda

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

Prezio horiek lortzeko, % 7 gehituko zaio unitatearen zuzeneko kostuari, zeharkako kostuen kontzeptuan.

Enpresa lehiaketariak hitzemango du, adjudikaziodun gertatuz gero, 2. prezio-koadroa, eskaintzan ageri den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, egingo duela, dokumentuaren xedeen arabera egiturarekin, eta obren zuzendariari aurkeztuko diola lehen hilabetea amaitu aurretik, zuinetaren egiaztapenaren akta sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanaren, makinen eta materialen oinarritzko prezio unitarioen zerrenda.

Eskaintako kontratuaren aurrekontua

- Exekuzio materialaren aurrekontua, enpresak lehiaketariak lizitazio-proiektuaren neurketei eskaintako prezio unitarioen aplikazioan oinarrituta. Aurrekontua PRESTO programan exekutatu beharko da, eta, papereko edizioaz gain, euskarri magnetikoko bertsio bat ere aurkeztuko da. Programa horiek eduki ezean, BC3 formatuan aurkeztea onartuko da.
- Obra-exekuzioaren aurrekontua egiteko, % 19 aplikatuko zaio exekuzio materialaren aurrekontuari, gastu orokorren eta onura industrialaren kontzeptuan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jn.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Kideak (Titularrak/Ordezkoa):
Mikel Magunazelaia Pinaga jn.
Xabier Orue Moro jn.
Itziar Zarate Urrutia and.
Gerardo Latorre Pedret jn.
Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria (Titularra/Ordezkoa):
Gerardo Latorre Pedret jn.

☐ Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleitzeko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBM	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$P_i = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $0,6 \times \text{BBM} < \text{Bi} \leq 0,8 \times \text{BBM}$

$$P_i = 44 + \frac{(\text{Bi} - 0,6 \times \text{BBM})}{0,2 \times \text{BBM}} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times \text{BBM} < \text{Bi} \leq \text{BBM}$

$$P_i = 46 + \frac{(\text{Bi} - 0,8 \times \text{BBM})}{0,2 \times \text{BBM}}$$

Baldin eta $\text{BBM} < \text{Bi} \leq (\text{BBM} + \text{Bmax}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(\text{Bi} - \text{BBM})}{(\text{Bmax} - \text{BBM})} \times 2$$

Baldin eta $(\text{BBM} + \text{Bmax}) / 2 < \text{Bi} \leq \text{Bmax}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times \text{Bi} - \text{BBM} - \text{Bmax})}{(\text{Bmax} - \text{BBM})} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia (23 puntu)
 - Proiektuaren azterketa
 - Obraren exekuzioaren azterketa
- Obrarako jarritako bitartekoak eta lanen programa (22 puntu)
 - Obrarako jarritako bitartekoak
 - Obraren plangintza orokorra
 - Lan-programa
- Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (5 puntu)

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarria egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarria baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruua dagoelako egiaztageria.
Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez



O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai.

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ

R.- BETEKIZUNAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Obra-zuzendaritza.

Partzuergoko zerbitzu eskudunek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, obra-zuzendaritzaren bitartez; hori horrela, ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo ditu, kontratatutako obra behar bezala egin dadin, betiere administrazio-klausula orokorren kondizio-agiriaren 4. eta 24. klausuletan xedatutakoaren arabera.

Obraren seinaleak eta kartelak

Enpresa adjudikazioduna behartuta dago proiektuaren laneko segurtasun eta osasunaren azterketan adierazitako elementuak osatzeko, honako hauek adierazteko behar diren seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa, haien exekuzioagatik izan litezkeen arriskuguneak — bai eremu horretan, bai haren mugetan eta inguruan—; horrez gain, administrazio-klausula orokorren kondizio-agiriaren 23. klausulak ezarritako aginduak bete beharko ditu.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatuko ditu, obretarako udal-lizentzia ematea izan ezik, aldarmioak, ibiak, hesiak ipintzeko nahiz galtzadak ireki eta harguneak jartzeko eta abarrerako behar direnak; haren kontura joango dira, orobat, kudeaketa horrek sortutako gastuak eta tasak. Udal-lizentziaren kontzeptuan Udalak fakturatutako zenbatekoa baino ez da gastu horretatik kanpo geldituko, halakorik badago.

Halaber, beste erakunde batzuetan (aldundia eta abar), erakundeon eskumeneko arloetan gurutzaketak eta/edo jarduketak direla kausa, baimenak izapidetu behar direnean, horrek sortutako gastu guztiak ere haren kontura joango dira.

Zerrenda zenbatetsiak

Hilerokoko zerrenda zenbatetsiak bc3 ziurtagiriko formatuan aurkeztu beharko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obrari, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkar horrek eta enpresa adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den



R.- BETEKIZUNAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

bitartean, ez kontratuaren amaieran.

Lizitatzaillearen eskaintzan obrara esleitutako gainerako langileak, edo haien arduraldia, aldatuz gero, egoki justifikatu beharko da, eta obra-zuzendaritzak onetsi beharko du. Aldaketarekin ados ez badago, edo eskaintako lantaldea bete ezean (hots, obrara esleitutako pertsona kopurua, kualifikazioa eta eskaintako arduraldia), eguneko 1.000 euroko zehapena aplikatuko da, hileroko ziurtagiritik kenduta. Eskaintako lantaldea obrarako jartzeko betebeharra behin eta berriz urratzea, obra-zuzendaritzako errekerimendua egin ostean, kontratua ezeztatzeke kausa izango da.

LIZITATZAILEEN GALDEREN TXANDA

- Eskaintzak aurkezteko epean, galdera-txanda bakar baten aukera izango dute lizitatzailleak.
- Galderak idatziz egin beharko dizkiote BBUPi, Kontratazio Sailari zuzenduta.
- Lizitazioa argitaratzen denetik aurkeztuko dira, eta ordutik hiru asteko epean jasotakoak onartuko dira.
- BBUPek idatziz erantzungo die egindako galdera guztiei, eta eskaintzaile guztiei jakinaraziko dizkie.